## PROGRAMAREN DATU OROKORRAK

| | |
|---|---|
| **Departamentua:** | 02 - JASANGARRITASUN DEPARTAMENTUA |
| **Atala:** | 0220 - Ingurumen Administrazioko Zuzendaritza Nagusia |
| **Programa:** | 200 - Eragileekiko lankidetza eta ingurumen-sentsibilizazioa |
| **Funtzionala:** | 170 - Ingurumenaren administrazio orokorra |

**Programa mota:**

Finalista

**Misioa:**

Lurraldeko sektore guztien ingurumen-hobekuntza bultzatzea, hainbat sektoretan natura-baliabideak babesteko irizpideak hartzea eta lurraldearen garapen iraunkorrean herritarrek parte-hartze aktiboa izatea sustatuz.

**Egoeraren diagnostikoa:**

Ingurumen hobekuntzarako helburuak, bai mundu mailan, Parisko Akordioarekin eta 2030 Agendarekin erreferente nagusi gisa, bai Gipuzkoako lurralde mailan, zorrotzak dira eta eremu ugari hartzen dituzte.

Gure lurraldean, Klima Aldaketaren aurka Borrokatzeko Gipuzkoako Estrategiak eta Gipuzkoako Jasangarritasun Energetikoaren Estrategiak, erreferentziako plangintza-esparru gisa, 2050erako zenbait jomuga ezartzen dituzte, lurraldeko esparru eta sektore guztietan ingurumen-hobekuntzak lortzera bideratuak.

Testuinguru horretan, esan behar da foru ingurumen-administrazioa irmo ari dela lanean ezarritako helburuak betetzeko, eta horren isla da Garapen Iraunkorreko Helburuen ingurumen-adierazleei buruzko txostenean urtero aztertzen diren ingurumen-adierazleen aurrerapena.

**Beharraren deskribapen xehatua:**

Lurraldeko ingurumen-administrazioa funtsezkoa da jardueren, administrazio publikoaren eta, oro har, Gipuzkoako gizarte osoaren portaera hobetzeko. Izan ere, indarrean dagoen lege-esparruak EAEko administrazio publikoak eremu horretan trakzio-lana egitera behartzen ditu.

Era berean, beharrezkoa da Gipuzkoako Foru Aldundiak Gipuzkoako Lurralde Historikoko udalerriei eta, oraintsuago, ikastetxeei garapen iraunkorreko helburuak betetzearen aldeko ekintzan egindako ibilbide luzeari jarraipena ematea eta, ahal bada, indartzea.

Azkenik, ingurumen-organoaren ekintzaren zeharkako elementu gisa, ezinbestekotzat jotzen da gizarte osoa parte hartzea GFAk sustatutako ingurumen-hobekuntzako ekintzan, lurraldeko beste erakunde eta eragile batzuekin sinergiak sortuz eta herritarren zabalkundea, sentsibilizazioa eta inplikazio aktiboa bultzatuz.

**Nori zuzendua:**

Gipuzkoako Foru Aldundiko departamentuak, udalak, beste administrazio batzuk, lurraldeko enpresak, ikastetxeak eta herritarrak, oro har.

### Programaren estrategia.

**1. Baliabideak (inputak):**

Bitarteko ekonomiko eta giza baliabide propioak Kanpoko laguntza teknikoa kontratatzea.

**2. Garatu beharreko jarduerak/prozesuak:**

Lurraldeko erakundeekin eta eragileekin informatzeko, biltzeko eta koordinatzeko jarduerak. Kontsultak jasotzea eta kudeatzea, eta eragile interesdunei arreta ematea. Langileen prestakuntza. Mintegiak antolatu eta ematea, webgunea mantentzea eta informazio publikoko fasean dauden espedienteetan parte hartzeko eta informatzeko beste bide batzuk. Dirulaguntzen deialdiak eta lankidetza-hitzarmenak.

**3. Ondasun eta Zerbitzuak (outputak):**

Zuzendaritzako langileen prestakuntza eta dokumentazioa, instalazioak eta oinarrizko zerbitzuak. Akordioak eta eragileekin lankidetzan aritzeko beste tresna batzuk. Zuzendaritzaren webgunea, informazio

orokorra eta kontsultei emandako erantzunak. Zuzendaritzaren laguntza orokorreko laguntza teknikoak. Mintegiak eta bestelako ekitaldiak. Udalentzako, ikastetxeentzako eta abarrentzako dirulaguntzak. Lankidetza-hitzarmenak.

**Programaren arau esparrua:**

10/2021 Legea, Euskadiko Ingurumen Administrazioari buruzkoa. Ingurumenaren arloan informazioa eskuratzeari, erabakiak hartzean jendeak parte hartzeari eta justiziara sartzeari buruzko Hitzarmena berresteko Agiria (Aarhuseko Hitzarmena).

## 2024-2027 KUDEAKETA PLAN ESTRATEGIKOARI LOTUTAKO DEPARTAMENTU JARDUKETA

**Urteko helburua:** Klima aldaketari aurre egiteko trantsizioak bultzatzea lurraldearen karbono aztarna gutxituz, karbonoa xurgatzeko ahalmena handituz, birziklapena indartuz, energia iturrien erabileran aldaketak sustatuz eta energia berriztagarriak bultzatuz.

| Adierazlea | Neurri-unitatea | Helburu mota | Azken balioa | Aurtengo aurreikuspena | Urteko helburua | Agintaldiko helburua |
|---|---|---|---|---|---|---|
| Emandako laguntzen kopurua. | Kopurua | >= | 139,00 | 28,00 | 30,00 | 120,00 |
| Birziklatze tasa (%) | Ehunekoa | >= | 55,00 | 57,00 | 57,00 | 60,00 |
| Energia komunitateen kopurua | Kopurua | = | 60,00 | 70,00 | 72,00 | 94,00 |

### Helburuari lotutako ekintza lerroak eta ekintzak

**1. Ekintza lerroa:**
Gizartearekin komunikazioa indartzea, sentsibilizazioan sakontzea eta ingurumen-boluntariotza sustatzea.

4 KALITATEZKO HEZKUNTZA % 26,03
9 INDUSTRIA, BERRIKUNTZA ETA AZPIEGITURA % 22,73
11 HIRI ETA KOMUNITATE JASANGARRIAK % 25,10
17 HELBURUAK LORTZEKO ALIANTZA % 26,07
18 HIZKUNTZA ETA KULTUR ANIZTASUNA % 0,07

| | Ordainketa kredituak | Datozen urteetako gastuak | Sarrera lotua | Hasiera data | Bukaera data | Etorkizuna eraikiz |
|---|---|---|---|---|---|---|
| **Ekintza lerroa, guztira** | **1.074.790,02** | | | **2026/01/01** | **2026/12/31** | |
| **1.1 Ekintza**<br>Ekipoak eta oinarrizko zerbitzuak | 46.650,00 | | | 2026/01/01 | 2026/12/31 | |
| **1.2 Ekintza**<br>Bilerak eta topaketak | 28.603,00 | | | 2026/01/01 | 2026/12/31 | |
| **1.3 Ekintza**<br>Dokumentazioa eta prestakuntza | 9.842,00 | | | 2026/01/01 | 2026/12/31 | |
| **1.4 Ekintza**<br>Web ataria eta apps mantentzea eta hobetzea | 5.682,20 | | | 2026/01/01 | 2026/12/31 | |

| | Ordainketa kredituak | Datozen urteetako gastuak | Sarrera lotua | Hasiera data | Bukaera data | Etorkizuna eraikiz |
|---|---|---|---|---|---|---|
| **1.5 Ekintza**<br>Ingurumen-legeriari buruzko jardunaldiak eta mintegiak | 153.552,00 | | | 2026/01/01 | 2026/12/31 | |
| **1.6 Ekintza**<br>Udalerrientzako jasangarritasun-dirulaguntzak (GJH). | 269.760,00 | | | 2026/01/01 | 2026/12/31 | |
| **1.7 Ekintza**<br>Ikastetxeentzako jasangarritasun-dirulaguntzak (GJH). | 279.760,00 | | | 2026/01/01 | 2026/12/31 | |
| **1.8 Ekintza**<br>Lankidetzak beste eragile batzuekin (IHOBE-Udalsarea 2030, Udako Ikastaroak Fundazioa-EHUko Jasangarritasun Foroa, Gurutze Gorria, Cristina Enea Fundazioa, Dendatuz Merkataritza Federazioa, Mario Onaindia Fundazioa). | 280.145,61 | | | 2026/01/01 | 2026/12/31 | |
| **1.9 Ekintza**<br>Programaren eragin linguistiko handiko kontratuetan edota dirulaguntzetan hizkunta-klausula berrituak txertatu. | 795,21 | | | 2026/01/01 | 2026/12/31 | |

## GENERO BERDINTASUNEKO PLANA

**Programaren genero garrantzia:** Ertaina

**Programak ukitzen duen kolektiboa:**

Populazio osoa

**Programak ukitutako gaitasuna(k):**

Gizartean eta politikan parte hartu ahal izatea

**Beharraren deskribapen xehatua:**

Genero-ikuspegia kontuan hartzen da, bai eragileekiko lankidetzan (hitzarmenen bidez), bai tokiko jasangarritasuna sustatzean, udalei, ikastetxeei eta elkarteei zuzendutako ekintzen eta dirulaguntzen bidez. Azpibatzordeen 2025eko deialdian, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako eta Emakumeen aurkako Indarkeria Matxistarik Gabeko Bizitzetarako Legearen testu bategina onartzen duen martxoaren 16ko 1/2023 Legegintzako Dekretuarekin bat datozen betebehar eta balorazio-irizpide berriak txertatu dira.

| | | |
|---|---|---|
| **Kuantifikazioa:** | 0,00 | ( % 0,00 ) |
| **Ordainketa kredituak:** | 0,00 | ( % 0,00 ) |
| **Datozen urteetako gastuak:** | 0,00 | ( % 0,00 ) |

## HIZKUNTZA BERDINTASUNEKO PLANA

**Beharraren deskribapen xehatua:**

Programa honetan Zuzendaritzaren webgunea eta hainbat dirulaguntza lerro sartzen dira, batez ere udalei eta ikastetxeei zuzenduak. Lehenengo kasuan, bi hizkuntza ofizialen erabilera orekatua bermatu beharko da, eta udalekiko eta ikastetxeekiko harremanetan, berriz, erakunde horien errealitate soziolinguistikoa hartuko da kontuan, neurri handi batean nagusiki euskaraz lan egiten baitute, betiere pertsona guztien hizkuntza-eskubideak errespetatuz.

| Kategoria | Nola |
|---|---|
| 6.- Hizkuntza-klausulak | 6.- Hizkuntza-klausulak |

## GJH

**Beharraren deskribapen xehatua:**

Programa honek bereziki laguntzen die 4. (KALITATEZKO HEZKUNTZA), 9. (INDUSTRIA, BERRIKUNTZA ETA AZPIEGITURA) eta 11. (HIRI ETA KOMUNITATE IRAUNKORRAK)

**Kuantifikazioa:** 1.074.790,02 ( % 100,00 )

## Programari lotutako GJH zerrenda

| GJH, Helburu eta Ekintza lerroak | Ordainketa kredituak | Datozen urteetako gastuak |
|---|---|---|
| 4-Kalitatezko hezkuntza<br><br>Guztiontzako kalitatezko hezkuntza inklusiboa nahiz bidezkoa bermatzea eta etengabeko ikaskuntzarako aukerak bultzatzea. | **279.760,00** | |
| **Helburua** 4.7 - 2030. urterako, ikasle guztiek garapen jasangarria sustatzeko beharrezkoak diren ezagutza aberatsak eta praktikoak eskuratzen dituztela bermatzea, besteak beste, garapen jasangarrirako eta bizimodu jasangarrietarako hezkuntzaren, giza eskubideen, genero berdintasunaren, bakearen eta indarkeriarik ezaren kultura sustatzearen, mundu mailako hirigintzaren eta aniztasun kulturalaren eta kulturaren garapenerako hezkuntzaren bitartez. | 279.760,00 | |
| **Ekintza lerroak** | | |
| Gizartearekin komunikazioa indartzea, sentsibilizazioan sakontzea eta ingurumen-boluntariotza sustatzea. | 279.760,00 | |
| 9-Industria berrikuntza eta azpiegiturak<br><br>Azpiegitura erresilienteak eraikitzea, industrializazio inklusiboa eta jasangarria bultzatzea, eta berrikuntza sustatzea. | **244.329,20** | |
| **Helburua** 9.c.1 - Nabarmen areagotzea informazioaren eta komunikazioen teknologiarako sarbidea, eta, 2020rako, aurrerapen txikieneko herrialdeei Interneterako sarbide unibertsala eta arrazoizkoa emateko ahalegina egitea | 46.650,00 | |
| **Ekintza lerroak** | | |
| Gizartearekin komunikazioa indartzea, sentsibilizazioan sakontzea eta ingurumen-boluntariotza sustatzea. | 46.650,00 | |
| **Helburua** 9.1 - Azpiegitura fidagarriak, jasangarriak, erresilienteak eta kalitatezkoak garatzea, garapen ekonomikoa eta giza ongizatea bultzatzeko, pertsona guztiek irispide eskuragarria eta bidezkoa izan dezaten ahalegin berezia eginez. | 197.679,20 | |
| **Ekintza lerroak** | | |
| Gizartearekin komunikazioa indartzea, sentsibilizazioan sakontzea eta ingurumen-boluntariotza sustatzea. | 197.679,20 | |
| 11-Hiri eta komunitate jasangarriak<br><br>Hiriak eta giza kokaguneak inklusiboak, seguruak, erresilienteak eta jasangarriak izatea lortzea. | **269.760,00** | |
| | | |

| GJH, Helburu eta Ekintza lerroak | Ordainketa kredituak | Datozen urteetako gastuak |
|---|---|---|
| **Helburua** 11.b - Gizarteratzea, baliabideen erabilera eraginkorra, klima aldaketa arintzea eta hondamendien aurreko erresilientzia sustatzeko politika eta plan integratuak ezartzen dituzten hiri eta giza kokaguneen kopurua nabarmen handitzea, eta, 2015-2030 urteetan hondamendi arriskua gutxitzeko Sendai Esparruarekin bat etorriz, hondamendi arriskuaren kudeaketa integrala praktikan jartzea maila guztietan. | 269.760,00 | |
| **Ekintza lerroak** | | |
| Gizartearekin komunikazioa indartzea, sentsibilizazioan sakontzea eta ingurumen-boluntariotza sustatzea. | 269.760,00 | |
| 17-Helburuak lortzeko aliantza<br><br>Ezarpen-baliabideak sendotzea eta Garapen Jasangarrirako Munduko Ituna biziberritzea. | **280.145,61** | |
| **Helburua** 17.17 - Arlo publikoan, publiko-pribatuan eta gizarte zibilean aliantza eraginkorrak sor daitezen sustatzea, aliantzen baliabideak lortzeko estrategiak eta esperientzia baliatuz. | 280.145,61 | |
| **Ekintza lerroak** | | |
| Gizartearekin komunikazioa indartzea, sentsibilizazioan sakontzea eta ingurumen-boluntariotza sustatzea. | 280.145,61 | |
| 18-kultura eta hizkuntza aniztasuna<br><br>Kultura eta hizkuntza aniztasuna | **795,21** | |
| **Helburua** 18.1 - Hizkuntza eta kultura guztien presentzia eta errekonozimendua bermatzea, garapen pertsonal eta sozialerako ezinbesteko faktore gisa | 795,21 | |
| **Ekintza lerroak** | | |
| Gizartearekin komunikazioa indartzea, sentsibilizazioan sakontzea eta ingurumen-boluntariotza sustatzea. | 795,21 | |
| **Guztira** | **1.074.790,02** | |

## PROGRAMAREN AURREKONTUAREN LABURPENA / RESUMEN DEL PRESUPUESTO DEL PROGRAMA

| Gastuen kapituluak / Capítulos gastos | 2025 | 2026 | Datozen urteetako gastuak/Gastos Futuros | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | | | 2027 | 2028 | 2029 | 2030 eta hurrengoak/ 2030 y siguientes | Guztira / Total |
| 1. LANGILERIA GASTUAK GASTOS DE PERSONAL | 153.044,00 | 159.040,00 | | | | | |
| 2. ONDASUN ETA ZERBITZUEN GASTU ARRUNTAK GASTOS CORRIENTES EN BIENES Y SERVICIOS | 128.500,00 | 128.500,00 | | | | | |
| 3. FINANTZA GASTUAK GASTOS FINANCIEROS | | | | | | | |
| 4. TRANSFERENTZIA ARRUNTAK TRANSFERENCIAS CORRIENTES | 320.000,00 | 360.250,00 | | | | | |
| 5. KONTINGENTZIETARAKO ETA BESTE EZUSTEKO BATZUETARAKO FUNTSA FONDO DE CONTINGENCIA Y OTROS IMPREVISTOS | | | | | | | |
| **Eragiketa arruntak, guztira Total operaciones corrientes** | **601.544,00** | **647.790,00** | | | | | |
| 6. INBERTSIO ERREALAK INVERSIONES REALES | 17.000,00 | 17.000,00 | | | | | |
| 7. KAPITAL TRANSFERENTZIAK TRANSFERENCIAS DE CAPITAL | 350.000,00 | 410.000,00 | | | | | |
| **Kapitaleko eragiketak, guztira Total operaciones de capital** | **367.000,00** | **427.000,00** | | | | | |
| 8. AKTIBO FINANTZARIOAK ACTIVOS FINANCIEROS | | | | | | | |
| 9. PASIBO FINANTZARIOAK PASIVOS FINANCIEROS | | | | | | | |
| **Finantza eragiketak, guztira Total operaciones financieras** | | | | | | | |
| **Guztira / Total** | **968.544,00** | **1.074.790,00** | | | | | |

| Planen zenbateko osoa, kapituluka / Total planes/capitulos | Ordainketa kredituak / Créditos de pago | | Datozen urteetako gastuak / Gastos futuros | | Guztira / Total | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| | Estrategikoa / Estratégico | Operatiboa / Operativo | Estrategikoa / Estratégico | Operatiboa / Operativo | Estrategikoa / Estratégico | Operatiboa / Operativo |
| 1. LANGILERIA GASTUAK<br>GASTOS DE PERSONAL | 159.040,02 | | | | 159.040,02 | |
| 2. ONDASUN ETA ZERBITZUEN GASTU ARRUNTAK<br>GASTOS CORRIENTES EN BIENES Y SERVICIOS | 128.500,00 | | | | 128.500,00 | |
| 3. FINANTZA GASTUAK<br>GASTOS FINANCIEROS | | | | | | |
| 4. TRANSFERENTZIA ARRUNTAK<br>TRANSFERENCIAS CORRIENTES | 360.250,00 | | | | 360.250,00 | |
| 5. KONTINGENTZIETARAKO ETA BESTE EZUSTEKO BATZUETARAKO FUNTSA<br>FONDO DE CONTINGENCIA Y OTROS IMPREVISTOS | | | | | | |
| **Eragiketa arruntak, guztira<br>Total operaciones corrientes** | **647.790,02** | | | | **647.790,02** | |
| 6. INBERTSIO ERREALAK<br>INVERSIONES REALES | 17.000,00 | | | | 17.000,00 | |
| 7. KAPITAL TRANSFERENTZIAK<br>TRANSFERENCIAS DE CAPITAL | 410.000,00 | | | | 410.000,00 | |
| **Kapitaleko eragiketak, guztira<br>Total operaciones de capital** | **427.000,00** | | | | **427.000,00** | |
| 8. AKTIBO FINANTZARIOAK<br>ACTIVOS FINANCIEROS | | | | | | |
| 9. PASIBO FINANTZARIOAK<br>PASIVOS FINANCIEROS | | | | | | |
| **Finantza eragiketak, guztira<br>Total operaciones financieras** | | | | | | |
| **Guztira / Total** | **1.074.790,02** | | | | **1.074.790,02** | |